

KOLORETAKO TXARTELAK. EKINTZAILEAREN EKOSISTEMAREN BIOANIZTASUNA

Posted on 29/04/2011 by Naider



[Helsinki Technopolis](#) bertako arduradunek azaldu zidaten nola antolatu zuten han ekintzailtza ekitaldi arrakastatsuenetako bat. Doako sarrera onartzen bazen ere, aretora sartzean, antolatzailerek galdera bat egin diete bertaratutako guztiei: nor zara zu? Erantzunaren arabera, koloretako txartel bat esleitu zitzaion flapean jartzeko.

Inbertitzailea bazina txartela gorria zen, ekintzailea bazina urdina eta aholkularia bazina beltza (edo antzeko zerbait). Aholkulariak ongi etorriak izan ziren baina antolatzailerek jakin nahi zuten zein orekatua zen sareko lana. Enpresa garatzeko aholkularitza beharrezkoa zela ulertu zuten: negozioa, komunikazioa, finantza aholkularitza... baina ekitaldiak inbertitzaile eta ekintzaileen masa kritiko nahikoa izatea eta desitxuratua ez izatea nahi zuten.

Noizean behin Espainian ekintzaileei zuzendutako ekitaldi batera joaten naiz eta nire sentsazioa da ekitaldi hauetan **txartel beltz gehiegi egongo liratekeela eta apenas gorririk**. Nire ikuspuntutik, sarritan "ekintzailtza-ekosistema" deitzen den hori oso desorekatua dago.

Alde batetik, badirudi ekosistema honek ez dakiela ezagutzen ez duten edo nahiko erakargarritzat hartzen ez duten ekintzaile nahikoa erakartzen. Eta, gainera, oraindik ezin izan da inbertitzaile-sare sendo bat sortzea, bere edozein modalitatetan (business angels, VC, seed funds, ...).

Ekosistema malkartsu honetan, norbaiti entzun nion behin ekintzaile bakoitzeko hiru "*entrenatzaile(k)*" zeudela komentatzen. Baina, zein izango litzateke inbertitzaileen ratioa? Askoz okerragoa den beldur naiz. Zer egin daiteke *ekosistema honen biodibertsitatea* handitzeko?

There are no comments yet.